

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Refbio, Navarrabiomed buru duen ikerketako mugaz gaindiko sarea, jardunbide egokien eredu Bruselan

2012an sortua, Pirinioetako bi aldeetako komunitateetako erakundeek osatzen dute, osasun-alorreko lankidetzak sustatzeko asmoz

Lunes, 19 de octubre de 2015

[Refbio](#), Pirinioetako

Ikerketa Biomedikoaren Mugaz gaindiko Sarea nazioarteko lankidetzako jardunbide egoki modura aurkeztu da berriki, Bruselan. Ekitaldia hilaren 14an egin zen, hiri eta eskualdeen XIII. Europako Astea ospatzen zela-eta.

[Navarrabiomed](#)-Miguel

Servet Fundazioa buru duen sarea 2012an sortu zen, eta

Espainia nahiz Frantziako zenbait entitate batzen ditu, honako helburu honekin: alde batetik, Pirinioetako bi aldeetako osasun-zientzien lankidetzak sustatzea, eta bestetik, osasunerako alor garrantzitsuetan ikerketa biomedikoa bultzatzea; horrekin batera, ospitale, ikerketa-zentro eta unibertsitateen arteko harremana nahiz lotura hobetzen laguntzea.

Ehun bat pertsona bertan zirela, haien artean Europako Batzordeko eta zenbait eskualdetako ordezkariak zeuden, Navarrabiomed-eko kudeaketa-zuzendari berri Marisol Fragosok Refbiok bere ibilbidearen lehen bi urte eta erdian erdietsitako mugarri eta emaitzak ezagutarazi zituen; 18 ikerketa-proiektu martxan jarri dira, eta 2.000 ikertzailek parte hartu dute. Gainera bere agerraldian, haren garapenerako bigarren fasean jorratuko dituzten berrikuntza nahiz erronka batzuk zein izango diren aurreratu zuen.

Topaketan, gainera, osasun-alorreko Europako beste sei ekimenen berri eman zen.

Refbioren bigarren fasea

Gaur egun, Navarrabiomed-Miguel Servet Fundazioa Refbioren jarraipenerako proposamenaren buru da, eta azken horren lana lankidetzak sustatzea da, horretarako, proiektuak bultzatuz eta enpresa nahiz klusterretarako (entitateen taldea) I+Geko berrikuntza, gardentasun eta emaitzen ustiapenaren alde eginez.

Datozen urteotan, sarearen jarduera-ardatza Akitania aldera



Mugaz gaindiko ikerketa-sarea, Refbio, jardunbide egoki modura aurkeztu da Bruselan.

zabalduko da, Osasuna Santé klusterra barnean sartuz; azken horrek 160 entitate ditu enpresak, laborategiak eta ikerketa-zentro bat kontuan hartuta. Kluster hori barnean hartuz, Akitaniako eskualdearen eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Mugaz Gaiindiko Lankidetzaren Hitzarmenaren barneko harremanak areagotuko dira.

Aurreikusitako beste berrikuntzetako bat ezagutza-transferentziaren lan-sorta berri bat abian jartzea izango da. Teknologia-zentroek eta enpresek lanbideko jardunbide egokiak jasoko dituzte, bai eta teknologia biomedikoaren baliozkotasun-programak ere.

Finantzaketa-arloko jarduerari dagokienez, Navarrabiomed-MSF buru izango duen I+G+B proiektuei laguntzeko deialdi bat abiaraztea jasotzen da, zentro parte-hartzaileetako profesionalentzat.

Guztira, Refbio-n Pirinio arteko isurialdeko 6 eskualdeetako 9 ikerketa-zentrok parte hartuko dute:

- [Navarrabiomed-Miguel Servet Fundazioa](#), buru izanik.
- [Toulouseko Centre Hospitalier Universitaire](#) (CHU). Midi-Pyrénées.
- [Toulouseko Université Paul Sabatier](#) (UPS). Midi-Pyrénées.
- [Santé Osasuna Klusterra](#), Akitaniakoa.
- [Osasun, Berrikuntzako eta Ikerketako Euskal Fundazioa \(BIOEF\)](#), Euskal Autonomia Erkidegoa.
- [Ikerketa Biosanitarioko Institutua \(BIODONOSTIA\)](#). Euskal Autonomia Erkidegoa.
- [Euskal Autonomia Erkidegoko Ospitale Unibertsitarioko Ikerketa Sanitarioko Institutua \(BIOCRUCES\)](#).
- [Errioxako Ikerketa Biomediku Zentroa \(CIBIR\)](#).
- [Aragoiko Ikerketa Sanitarioko Institutua](#).